Germaniar konfederazioaren formaz eta finkatzeaz: behin-betiko akta (1820)

1 . Artikulua. Germaniar Konfederazioa Alemaniako printze subiranoen eta hiri libreen zuzenbide publikoko batasuna da Konfederazioaren barruan dauden estatuen independentziari eta zauriezintasunari eusteko eta Alemaniaren barneko nahiz kanpoko segurtasunari eusteko.

2. Batasun hori beraien artean independenteak diren estatuen elkarte gisa hartzen da kontratuko obligazio eta eskubide berberak izanik. Hala ere, kanpoko harremanetan Konfederazioa politikoki bateratua den botere federal bailitzan hartuko da.

5. Konfederazioa desegin ezin den batasuna bailitzan eratzen da eta ezin dezake bertako kide bakar baten ere irteera ezarri.

7. Batzar federalak, federazioko kide guztien ahalguztidunek osatua, Konfederazioa bere osotasunean ordezkatzen du eta bere borondatea eta akordioak adierazteko erakunde konstituzional iraunkorra da.

8. Dietaren ahalguztidunak euren komisio-emaileen menpeko dira erabat eta soil-soilik beren aginduak betetzeaz eta kudeatzeaz arduratzen dira.

9. Batzarrak bere eskubideak eta eginbeharrak aurrez ezarritako mugen barruan burutzen ditu soilik.

10. Konfederazioaren borondate orokorra batzar federalak konstituzionalki hartutako akordioaren bidez adierazten da; konstituzionalak batzar federalaren aginpideen mugen barruan, aztertu ondoren eta botazio askearen bidez, kontseilu murriztuan nahiz bilkuran, akordio konstituzionaletan agintzen den bezala egiten diren akordioak izango dira.

18. Harmoniari eta bakeari eutsi behar zaie konfederazioko kideen artean. Horretarako batzar federalak, konfederazioaren segurtasuna eta lasaitasuna nolabait ere mehatxatuta dagoenean, ahalmen osoa du batzorde hori mantentzea edota berrezartzea derrigortzeko eta ondorengo artikuluetan agertzen diren akordio egokiak burutzeko.

25. Estatu federaletan barneko ordenari eta lasaitasunari eustea soil-soilik euren gobernuen aginpidea da. Salbuespen gisa ikus daiteke, federazioko kideen barne-segurtasuna eta elkarri laguntzeko obligazioa kontuan izatearren,

federazioaren lankidetza lasaitasuna mantentzeko edo berrezartzeko herritarren aldetik gobernuari zor zaion menpekotasuna ukatzea, matxinada nabarmena edo beste estatu batzuetara hedatzeko arriskua gertatuko balitz.

26. Estatu baten lasaitasuna arriskuan jartzen denean, menpekoek gobernuari ez diotelako obeditzen, eta mugimendu iraultzaileen etena gerta litekeela ikusten denean, edota matxinada eraginkorra gertatzen denean eta gobernuak neurri konstituzionalak eta legalak agortu ondoren Konfederazioari laguntza eskatzen badio, Konfederazioari dagokio laguntza ahalik eta azkarren eskaintzea ordena lehenbailehen berrezartzeko.

31. Batzar federalak eskubidea eta obligazioa du federazioko Aktak eta federazioko oinarrizko legeak erabat burutzeko. Horretaz gain, federazioak onartutako berariazko bermeei eutsi, konstituzio federalari buruzko baliabide (komunikabide) guztiez arduratu...

35. Konfederazioak, botere federal gisa, gerra deklaratzeko eta bakea, hitzarmenak eta beste akordio batzuk hausteko eskubidea du. Federazioko Akten bigarren artikuluan hitzartutakoaren arabera, Konfederazioak eskubide hau bakar-bakarrik bere burua aldezteko, Alemaniaren independentziari eta kanpoko segurtasunari eta bere kide diren estatuen independentziari eta bortxaezintasunari eusteko erabiliko du.

60. Konfederazioko kide den estatu batek bere lurraldean ezarritako estamentuzko konstituziorako bermea Konfederazioan bilatu nahi duenean, Konfederazioak baimena du onartzeko. Horretarako konstituzioari indarrean eusteko eginkizuna du interesatuaren eskaeraz...

61. Aipatutako lurralde-konstituzioaren berariazko bermeetan izan ezik, eta Akta federaleko 13. artikuluan ezarritakoari eustea, batzar federalak ezin dezake estamentuzko lurralde-arazoetan esku hartu edota lurralde burujabeen eta bere estamentuen arteko liskarretan, 26. artikuluan aurreikusitako izaera ez duten bitartean...

Viena, 1820-06-08[1]

[1] [Testu honen iturria: ZZEE (1998): *Historia testu bidez*, Arabako Foru Aldundia - EHU, Gasteiz. Itzulpenaren arduradun den Mikel Aizpururen baimenaz].